

285/2024 EBAZPENA, uztailaren 2koa, Hezkuntzako Zuzendari Nagusiarena, "Euskaran biDelagun 2024-25" euskarazko programa hezigarrirako deialdia onartzen duena. Nafarroako eremu ez euskalduneko D ereduko ikastetxe publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago eta 2024-2025 ikasturtean egingo da.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du deialdi hori onartzea proposatzeko. Gehienez ere 24 saio egingo dira izena emandako talde bakoitzeko, astean bat. Saio horiek honela banatuko dira: 8 saio 2024ko irailetik abendura bitartean eta 16 saio 2025eko urtarritik ekainera bitartean. Programa 48 talderi esleituko zaie gehienez.

Programaren helburua da ikasleen ahozko ulermena eta adierazpena indartzea eta ikasgelako eguneroko jardueren osagarri den errefortzu didaktiko bat eskaintzea, ikasleek hizkuntza-tresna gehiago eskura ditzaten eta gaitasun hobea lor dezaten komunikazio-trebetasunetan.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- Nafarroako eremu ez euskalduneko D ereduko ikastetxe publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako programa hezigarriaren deialdia onartzea. Deialdia 2024-2025

ikasturtean egingen da, eta oinarriak ebazpen honen eranskinean jasota daude.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskinak [www.educacion.navarra.es](http://www.educacion.navarra.es) (Hezkuntza-Berriak) eta [www.navarra.es](http://www.navarra.es) (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berori aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izanen zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau eta Eranskina Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari eta Euskara Atalari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita lauko uztailaren bian.

HEZKUNTZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González